



Edición **XXII.** edizioa

Euskal Hiria kongresua

2023

Elkarguneak: erronka emergenteak, erronka sozialak eta lurraldea

Intersecciones: retos emergentes, retos sociales y territorio



EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

LURRALDE PLANGINTZA,
ETXEBIZITZA
ETA GARRAIO SAILA

DEPARTAMENTO DE PLANIFICACIÓN
TERRITORIAL, VIVIENDA
Y TRANSPORTES

ONU HABITAT
POR UN MEJOR FUTURO URBANO

KURSAAL, Donostia/San Sebastián
Azaroak 27 - 28 Noviembre

KONTZEPTU OHARRA

EUSKAL HIRIA KONGRESUA

Euskal Hiri Kongresua 2002. urtetik¹ egiten da Euskal Autonomia Erkidegoan, bertoko testuinguruan hiriei eta lurraldeari buruzko eztabaida sustatzeko tresna gisa. Kongresuak, proposatutako gaien bitartez, hiri-eremuen gaur egungo erronkak eta aukerak lantzen ditu, zenbait eragileren ikuspegitik eta ezagutza-eremu desberdinetatik. Kongresua Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailak antolatzen du, eta Nazio Batuen Erakundearen Giza Egonlekuetarako Programaren (NBE-Habitat) laguntza du.

TESTUINGURUA: ZEHARKAKOTASUNA HIRI- ETA LURRALDE-POLITIKETAN.

Lurralde- eta hirigintza-antolamendua bideratzen duten diziplina-ikuspegiek gero eta gehiago nabarmendu dute politika, plan eta programa publikoak zehazteko garaian zeharkako, sektore anitzeko ikuspegi edo ikuspegi integralei heldu behar zaiela. Garapen Jasangarrirako 2030erako Agendak eta Hiri Agenda Berriak, beste agenda global batzuen artean, ildo horretan aurrera egin behar dela ezartzen dute.

Horren adibide bat Euskadiko Hiri Agenda - Bultzatu 2050² da. Agenda hori Eusko Jaurlaritzak onartu zuen 2019. urtean, eta Euskal Autonomia Erkidegoko lurraldearen potentziala hobetzera bideratutako politika publikoen sistematizaziorako, orientazio estrategikorako eta koherentziarako ahaleginari erantzuten dio, ekonomia-hazkunderako, jasangarritasunerako eta gizarte-kohesioko aukerak eskaintze aldera.

Azken urteotan hiri- eta lurralde-eremura bideratu diren ekimen askok bezala, Bultzatu 2050ek, zortzi lehentasun estrategikoen bitartez, sektoreko planteamendu estrategiko «tradizionalak» (etxebizitza, mugikortasuna, azpiegiturak, ingurumena eta ekipamendua, besteak beste) eta duela gutxira arte sektore haiekin ia zerikusirik ez zutela uste zen beste sektore batzuetako elementuak (osasuna, enplegua, gizarteratzea eta kultura) uztartzen ditu.

Zeharkakotasuna landu beharra erronka metodologiko bat da, zalantzarik gabe. Horrek guztiak konplexutasun handia duenez, gaur egun informazio eta ebidentzia asko eduki dezakegunez eta parte-hartze prozesuetan interesa duten eragile eta taldeekin adostu behar denez, zeharkako planteamenduak nekez inplementa daitezkeen proposamenak baizik ez dira askotan. Ildo horretan, batzuetan beharrezkoa da zenbait faktoreren arteko harreman espezifikoetan

¹ Euskal Hiri: [Aurreko Kongresuak - EuskalHiria Kongresua - Euskadi.eus](#)

² [HIRI AGENDA BULTZATU 2050 - Lurralde plangintza eta hirigintza - Euskadi.eus](#)


murgiltzea, plangintza- eta inplementazio-prozesuetan sartzeko guneak aurkitzeko. Premia horren ondorioz sortu da elkarguneen ideia.

EUSKAL HIRIA 2023. ELKARGUNEAK: erronka emergenteak, erronka sozialak eta lurraldea

Euskal Hiriaren edizio honetan zenbait erronkaren (erronka sozialak, ekonomikoak, ingurumenekoak, kulturalak), jendartearen eta lurraldearen arteko elkarguneei buruzko eztabaida proposatu da. Bereziki, gaur egungo bost erronkatara bideratu da, eta erronka horiei bi ikuspegitatik egingo zaie aurre: alde batetik, ikuspegi sozialetik, erdigunean pertsonak jarritz; eta, bestetik, lurraldetik, jardueren eta harreman ekonomiko eta sozialen funtsezko oinarria baita. Erronka emergente hauek izango dira eztabaidaren ardatz:

- 1) Aldaketa demografikoa
- 2) Ekintza klimatikoa
- 3) Trantsizio energetikoa
- 4) Kultura eta turismoa
- 5) Hurbileko ekonomia

Alderdi horien, erronka sozialen eta lurraldearen arteko elkarguneak era askotara adierazten dira, eta elkarreragin konplexu ugaritan zertzen dira. Positiboki edo negatiboki elkartzen dira sarri, eta askotan atzeraelikatzen dira.



1. elkargunea: aldaketa demografikoa, erronka sozialak eta lurraldea.

Errenta handiak dituzten herrialde gehienetan gehiago edo gutxiago gertatzen ari den aldaketa demografikoa izango da, zalantzarik gabe, datozen urteetan gizartearen bereizgarri izango den joeretako bat. Aldaketa horren ezaugarria biztanleriaren zahartze progresiboa da, jaiotzean bizi-itzaropenak gora egin duelako eta ugalkortasun- eta jaiotza-tasak behera egin dutelako. Nazio Batuen Erakundea-Habitaten 2022ko World Cities Report³ txostenaren arabera, Europan, lan egiteko adinean dauden herritarren kopurua (20 eta 64 urte bitartekoak) adinekoen guztizko kopuruarekin (65 urte edo gehiagokoak) alderatuta, 2001ean 3,9 izatetik 2020an 2,9 izatera jaitsi zen; aurreikusten da proportzio hori 1,6ra jaitsiko dela 2080rako. Aldaketa demografiko horiek ondorio garrantzitsuak izan ditzakete gobernuek pentsio-funtsei, arreta medikoari eta zerbitzu sozialei dagokienez dituzten baliabideetan. Biztanleriaren zahartzeak eskulan eskasia eta gainbehera ekonomikoa ere ekar ditzake.

Lurralde-mailan, biztanleriaren zahartzeak izango duen eraginaz gain, beste fenomeno demografiko batzuk ere badaude, hala nola landatik hirira gertatutako migrazioa. Fenomeno hori lurraldeko zenbait lekutan gertatzen da orain ere, aurreko hamarkadetako neurrian ez bada ere. **Erronka demografikorako 2030erako Euskal Estrategiak** hau dio: «*Beste funtsezko elementu bat erronka demografikoaren dimentsio espaziala edo egitura demografikoaren adierazpenak gurea bezalako lurralde batean marrazten dituen erronkak dira, gure lurraldea oso*

³ https://unhabitat.org/sites/default/files/2022/06/wcr_2022.pdf

anitza eta landa-eremua duena baita, biztanlegune ugari dituena, eta biztanleria bereziki zahartua eta aukera berriak eta erantzun egokituak eskatzen dituena».⁴

Hiriek eta lurraldeek eremu desberdin eta multidimentsionaletatik egiten diote aurre erronka demografikoari. Alde batetik, politikak eta programak ondorioak arintzera bideratzen dira, eta, horretarako, gazteen emantzipazioa eta jaiotza-tasa handitzeko bizi-baldintza egokiak errazten dira (etxebizitza eta lana eskuratzeko edo familia-bizitza bateragarri egiteko politikak); horrez gain, biztanle berriak (bereziki gazteak) erakartzen dira immigrazioaren bidez. Bestetik, hiriek eta lurraldeek errealitate berri horretara egokitu nahi dute, eta, horretarako, osasun- eta zaintza-sistemak hobetzera bideratutako politikak proposatzen dituzte, desgaitasun funtzionala duten pertsonentzako irisgarritasuna eta mugikortasuna bermatuz eta adinekoentzako aisialdi-aukerak areagotuz.

Azkenik, erronka demografikoa jarduera ekonomikoa bultzatzeko aukeratzat ere hartzen da. Adibidez, jendartearen zahartzearen ondorioz, *silver economy* delakoa sortu da.

Eztabaidarako galderak:

- Egungo joera demografikoek nola eragiten dute Euskal Autonomia Erkidegoko lurraldearen egituraketan eta orekan?
- Nola heldu behar zaio lurraldearen eta hirien gaiari erronka demografikora bideratutako politiketan eta programetan? Ba al dugu migratzaile berriak hartzeko gaitasunik, eta ba al dugu behar adina etxebizitza eta bitartekorik haien integrazio kulturala lortzeko?
- Lurralde- edo hiri-ikuspegia duten zer jardunbide egokik izan dezakete eragin handiena Euskal Autonomia Elkartearen eta Europaren jaiotza-tasa bultzatzeko?
- Nola aprobeitza ditzakegu erronka demografikotik eratorritako aukerak hiri eta lurralde orekatuagoak bultzatzeko?
- Zer politika bultzatu behar dira biztanleria gaztetzea ahalbidetuko duen talentu gaztea erakartzeko?

⁴ [Erronka demografikorako 2030erako Euskal Estrategia - Trantsizio Soziala eta 2030 Agenda - Eusko Jaurkitza - Euskadi.eus](#)

2. elkargunea: ekintza klimatikoa, erronka sozialak eta lurraldea.

Klima-aldaketa eztabaida publikoaren elementu garrantzitsuenetako bat da azken urteotan, eta gizateriak aurre egin behar dion erronka handienetako bat da, zalantzarik gabe. Jakina denez, klima-aldaketak ez die berdin eragiten lurralde guztiei, ezta talde sozial guztiei ere, klima aldaketaren eragin negatiboak gehien pairatuko dituztenak talde kalteberenak izango baitira. Aurrera begirako azterketa batzuen arabera, klima-aldaketak areagotu egingo ditu jendartean eta geografian dauden desberdintasunak.

Ekintza klimatikoaren, erronka sozialen eta lurraldearen aurrean sortzen diren elkarguneak era askotara adierazten dira. Esate baterako, klima-aldaketak ondorio negatiboak izan ditzake osasunean eta gaixotasun- eta hilkortasun-tasak igo egin daitezke muturreko ondorio edo fenomeno klimatikoengatik; era berean, ondorio negatiboak izan ditzake oinarri ekonomikoan, nekazaritza-produktibitatearen galeragatik, energia-kostuengatik, muturreko fenomenoaren eragina pairatu duten azpiegiturak eta elementuak birjartzeagatik, eta abar.

Halaber, aurreikusten da zenbait fenomenok –hala nola tenperaturaren igoerak, itsas mailaren igoerak, bero-uharteak eta prezipitazioen eta hondamendi naturalen intentsitatearen handitzeak (uholdeak edo baso-suteak, adibidez)– pertsonak desplazatzeko prozesuak eragingo dituztela, eta inpaktu ekonomiko handia ere bai, azpiegiturak eta ekoizpen-ahalmena galtzearen ondorioz. Orobat, fenomeno horiek eragina izango dute nekazaritzan, elikagaien ekoizpenean eta lehen sektoreko ekoizpen orokorrean ere.

Euskal Autonomia Erkidegoan, munduko herrialde askotan bezala, biztanleriaren eta haren jarduera ekonomiko industrialen eta hirugarren sektorekoen zati handi bat itsasertzean biltzen da. Kalkulatzen da kostaldeko udalerriek biztanleriaren % 59 eta jarduera ekonomikoetara bideratutako azaleraren % 32 hartzen dutela, Euskal Autonomia Erkidego osoarekin alderatuta. Hori dela eta, itsas mailak gora egingo duela aurreikusten denez, eremu horretako biztanleak eta jarduerak bereziki pairatuko dituzte klima-aldaketaren ondorio negatiboak.

Azken batean, esan behar da klima-aldaketara egokitzeko eta klima-aldaketa arintzeko emandako erantzuna funtsezko osagaia dela lurraldearen antolamenduan eta hiri- eta lurralde-politikan. Politika horiek, lehenik eta behin, bermatu beharko lukete ekintza eratorriek ez dutela arrakala soziala handituko, eta bereziki kalteberenak babestuko direla.

Eztabaidarako galderak:

- Zeintzuk izango dira desberdintasun nagusiak klima-aldaketaren ondorioek Eusjal Autonomia Erkidegoko lurraldeetan duten eraginari dagokionez? Zer ondorio izango ditu bereziki kostaldeko eremuetan bizi diren pertsonentzat?
- Politika sozialek zeri ekin beharko liokete klima-aldaketak eragindako ondorio negatiboak aurreikusteko?
- Egokitzeko planek eta proiektuek zer elementu desberdin landu beharko lituzkete lurraldearen integrazioa eta hiri-desberdintasunak hobetzeko?
- Lurraldearen antolamenduari eta hirigintzari buruzko zer ekimen mota izan dira arrakastatsuak itsasertzeko eremuen erresilientzia areagotzeko?

3. elkargunea: trantsizio energetikoa, erronka sozialak eta lurraldea.

Trantsizio energetikoa, hau da, berotegi-efektuko gasen emisioak saihesteko energiaren ekoizpen-, banaketa- eta kontsumo-ereduetan gertatzen diren aldaketen multzoa, ekintza klimatikoari buruzko arintze-politiken funtsezko ardatza da. Logikoa da pentsatzea ekonomien deskarbonizazioak, garapena karbonoan oinarrituta duen jendarte batean, eragin sozial handiak izango dituela, eta era desberdinean eragingo diela jendarteei eta lurraldeei.

Trantsizio energetikoaren eta erronka sozialen arteko harremana ere konplexua eta aldeaniztuna da. Alde batetik, trantsizio energetikoak hobekuntzak ekar ditzake adierazle sozialetan, hala nola osasun publikoan, enpleguan eta energia eskuratzeko aukeran. Ildo horretan, energia berriztagarrietarako trantsizioak airearen kutsadura eta harekin lotutako inpaktu sanitarioak murriztu ditzake, enplegu-aukera berriak sor ditzake energia berriztagarrien sektorean, eta elektrizitatea eskuratzeko aukera handitu dezake urrutien dauden edo bazter utzitako eremuetan. Energia norberak ekoiztea ere familien energia-gastuekin lotutako aurrezki-iturria izan daiteke.

Hala ere, trantsizio energetikoak arazo sozialak larriagotu egin ditzake, etekinen bidezko banaketa bermatzen duten politikekin eta inbertsioekin batera egiten ez bada eta lurraldean duten eragina konpentsatzen ez bada. Horrez gain, energia berriztagarrien teknologien kostua hasieran handia izan daiteke, eta horrek desberdintasuna eragin dezake edo areagotu.

Gainera, trantsizio energetikoak eragin nabarmena izan dezake lurraldean. Alde batetik, energia garbiak ekoizteko azpiegitura berriak agertu dira, hala nola instalazio fotovoltaiko handiak, aerosorgailuen sistemak edo zentral hidroelektriko berriak, eta, horren ondorioz, arreta guztia

ingurumen-inpaktuetan eta zentral horiek lurraldeetan hartzen dituzten lekuetan sortzen diren komunitateetan jarri da. Bestalde, elektrizitatea sortzeko ahalmenak tokiko eta eskualdeko ekonomietan aldaketak eragitea espero da, ez soilik azpiegitura berriak instalatzeari dagokionez, baita ekoizpen- eta banaketa-sare berriari lotutako beste erabilera eta jarduera batzuei dagokienez ere.

Trantsizio energetikoari lotutako erronkei, aukerei eta inpaktuei buruzko hausnarketa bereziki garrantzitsua da Euskal Autonomia Erkidegoan (ekonomia garatua duen herrialdea), energia-ekoizpena kontsumitutako energia guztiaren % 10 baino ez baita. Testuinguru horretan, trantsizio energetikoa klima-aldaketa arintzen laguntzeko aukera gisa ikusi behar da, baina baita ekoizpena handitzeko eta kanpoko iturriekiko mendekotasuna murrizteko aukera gisa ere.

Eztabaidarako galderak:

- Euskal Autonomia Erkidegoan zein da trantsizio energetikoren ahalmen eraldatzailea, eta zein dira hari lotutako potentzialtasunak eta arriskuak?
- Zer mekanismo ezar daitezke trantsizio energetikoak lurralde eta talde sozial faboratuen eta desfaboratuen arteko arrakala zabalduko ez duela bermatzeko? Lurraldeen arteko berronkarako zein aukera berri bultzatzen ditzake trantsizio energetikoak?
- Nola berma daitezke energia-trantsizioari lotutako planak eta politikak ebaluatzen mekanismo integralak, trantsizio energetikorako proposatutako esku-hartzeak eta agertokiek jendartean, ingurumenean eta kulturaren eragiten dituzten inpaktuak era holistikoa aintzat hartzen eta baloratzen dituztenak?
- Zer motatako politikek eta planek ahalbidetu dute edo ahalbidetuko dute trantsizio energetikoari lotutako onurak hobeto aprobetxatzea?

4. elkargunea: kultura eta turismoa, erronka sozialak eta lurraldea.

Kultura, identitatea eta lurraldea elkarri oso lotuta dauden kontzeptuak izaten dira, eta ezin dira elkarrengandik bereizita ulertu. Kultura eta identitatea kontzeptu elkartuak izan daitezke erronka sozialei aurre egiteko garaian, komunitate bateko kide izatearen sentimendua eta kide horien arteko lotura eta balio partekatuak ematen baititu.

Kulturak komunitatearen eta ekintza kolektiboaren garrantzia azpimarratzen du. Tradizio eta praktika kulturalak ere aktibismo sozial eta politikorako plataforma izan daitezke. Pertsonen balio partekatu horiekin lotura dutela sentitzen dutenean, litekeena da elkarrekin lan egitea

erronka komunei aurre egiteko, eta litekeena da, halaber, komunitateari eragiten dioten bidegabekeria sozialak identifikatzea eta haien aurka borrokatzea.

Bestalde, lurraldearen baldintzek, harremanek eta jarduerak zehazten dituzte, neurri handi batean, kultura eta identitatea. Eta, aitzitik, kultura-aldaketek eragin nabarmena izan dezakete lurraldeen modulazioan.

Era berean, ikuspegi sozialetik, kulturaren alderdi ekonomikoa eta lurraldearekin duen lotura proposatzen da. Jendarte globalizatuaren esparruan, kultura-industria jarduera ekonomikoki garrantzitsu gisa finkatu da. Eta, beste maila batean, kultura-industriak bere kokatzen den espazio-eremuan bertan topa dezake garatzeko ahalmena. Hiri batzuek, Bilbok, adibidez, arrakasta izan dute «lurralde industrialak» marka bere eginda, eta, horrela, turismoari lotutako dinamika ekonomikoki garrantzitsuak sortu dituzte. Hiri horien antzera, Euskal Autonomia Elkarteak, oro har, eta Donostiak, bereziki, tokiko gastronomia bere turismo-eskaintzaren funtsezko ardatz bihurtu du.

Bestalde, turismoa lehen mailako jarduera ekonomikoki gisa garatzeak eragina izan du sektorearentzat erakargarriagoak diren zenbait lurraldetan. Eragin horiek arriskuan jar dezakete bizikidetzak, lurraldeen jasangarritasuna txikitu dezakete, eta, are gehiago, bertako kulturaren iraupena arriskuan jar dezakete. Gai batzuk, hala nola hiriguneen eta landa-eremuaren turistifikazioa, etxebizitza turistikoaren hazkunde masiboa eta ondare historikoan duen eragina erronka handiak dira lurralde gehienetan, bereziki «arrakastatsuenak» izan direnetan.

Eztabaidarako galderak:

- Zeintzuk dira turismo-eskari handia duten hirien eta lurraldeen erronka nagusiak? Zeintzuk dira kulturaren eremurako arrisku espezifikoak, hiriek eta lurraldeek izandako «arrakasta» turistikoaren ondorioz?
- Zer mekanismo ezar daitezke hirietako eta landa-eremu oso espezifikoetako turismo-eskari handiaren arriskuak minimizatzeko?
- Lurraldean zer ahalmen eta sinergia sor daitezke hurbileko ekonomien, balio-kateen eta turismoaren artean?
- Kultura-industriak eta turismoak nola lagundu dezakete erronka demografikoari aurre egiten?

5. elkargunea: hurbileko-ekonomia, erronka sozialak eta lurraldea.

Lurraldearen eraikuntza historikoa gertuko ekoizpen- eta truke-zentroen hurbileko-ekonomiek baldintzatu dute neurri handi batean. Iraultza industrialaren ondoren, eta bereziki azpiegitura handien eta garraioibideen garapenaren ondoren, ekoizpena eta kontsumoa lurraldeetatik aldentzen hasi ziren, eta, horren ondorioz, beste jarduera eta harreman ekonomiko eta sozial batzuetarako espazioak sortu ziren. Joera hori etengabe hazi da, eta goia jo du globalizazioarekin.

Hala eta guztiz ere, gure jendarte globalak aurre egin behar dien askotariko krisiak egiturazko aldaketak sortzen ari dira ekoizpen- eta kontsumo-ereduetan. Hurbileko ekonomiek, hau da, ondasunen eta zerbitzuen tokiko ekoizpenari, kontsumoari eta zirkulazioari lehentasuna ematen dieten tokiko edo eskualdeko sistema ekonomikoek zenbait abantaila dituzte eskala handiko ekonomien aldean, sortutako inpaktuei dagokienez. Ekonomia horiek lanpostu gehiago sor ditzakete tokiko mailan, eta, ondorioz, langabezia- eta pobrezia-tasak murriztu daitezke eta gizarte-kohesioa handiagoa izan daiteke; horrela, lotura sozial sendoagoak izango dira eta komunitateak parte hartuko du tokiko ekoizleak eta kontsumitzaileak elkarren artean jardutera bultzatuko direlako. Horrek komunitatearen barruan konfiantza eta kapital soziala sortzen lagundu dezake.

Bestalde, ondasunen eta zerbitzuen hornidura-kateak murrizten direnean, jarduera ekonomikoen ingurumen-inpaktua moteldu egiten da, eta ekonomiaren zirkulartasuna eta dauden azpiegituren aprobetxamendu efizienteena bultzatzen dira. Tokiko ekonomia indartzeak kanpoko talken aurkako erresistentzia indartzen du, hala nola atzerapen ekonomikoen, hondamendi naturalen edo hornidura-katearen eteteen aurkakoa, kanpoko ekoizpen- eta kontsumo-iturriekiko mendekotasuna txikiagoa delako.

Azkenik, hurbileko ekonomiek tokiko kultura eta nortasuna zaintzen eta lurraldea berroneratzen eta jarduera tradizionalak berreskuratzen lagundu dezakete, ekoizpen-metodoak (tradizionalak eta eskuz egindakoak) eta tokiko enpresak babestuz. Izan ere, enpresa eta jarduera horiek, askotan, eskualde edo erkidego jakin batekoak izaten dira, eta funtsezko funtzioa betetzen dute lurralde-oreka zaintzeko.

Lurraldea antolatzeko politikak plan horrek hartu behar dituen politika guztiak (hurbileko ekonomiak sustatzea barne) koordinatzeko tresna dira. Horrela, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamenduaren Gidalerroek (LAG)⁵ lurraldearen garapenean jartzen dute arreta, hori

⁵ [Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak \(LAG\) - Lurralde Politikarako Aholku Batzordea - Euskadi.eus](https://www.euskadi.eus/lurralde-antolamenduaren-gidalerroak)

baita funtsezko oinarria hazkunde ekonomiko lehiakor jasagarria, ingurumenaren babesa eta kohesio soziala lortzeko. Horretarako, jarduera ekonomikoetarako lurzorua emateko, natura- eta kultura-ondarearen balioa handitzeko, ondare hori babesteko eta oreka soziala lortzeko funtsezko elementuak gehitzen dituzte, eta klima-aldaketaren, trantsizio energetikoaren, kulturaren eta turismoaren, erronka sozialen eta lurraldearen artean, besteak beste, sortzen diren elkarguneei erantzuten diete.

Eztabaidarako galderak:

- Hurbileko ekonomiaren esparruan:
 - Lurraldeari eta hiriguneei buruzko zein politika, plan eta jardunbide egokik ahalbidetu dute hurbileko ekonomiak (benetako 0 km) hobeto garatzea?
 - Zein da hurbileko ekonomiaren, ekonomiaren zirkulartasunaren eta ekoizpen-kateen arteko harremana lurraldean?
 - Hurbileko ekonomiak nola izan daitezke tresna egokiak erronka demografikoari aurre egiteko eta lurralde-oreka sustatzeko?
 - Zer ekimen mota sustatu beharko lirateke Euskal Autonomia Erkidegoko testuinguruan hurbileko ekonomia bultzatzeko (adibidez, «baserritik mahaira»)?
 - Zer pertsona sar daitezke lan-merkatuan jarduera horiek sortzeko?
- Kongresua amaitzeko galderak, 5. saioa laburpen-saio bat izan dadin saiatuz
 - Nola hel dakioke erronka demografikoari, kontuan hartuta jaiotza-tasa baxuan, zahartze-maila altuan eta birjarpen-indize baxuan oinarrituta dagoela?
 - Zein da hurbileko ekonomiaren testuingurua, lurraldeak erantzun behar dien erronken aurrean?
 - Nola antolatu behar dira jarduerak garapen jasagarria ahalbidetzeko?
 - Zein da lurralde-antolamenduaren zeregina jarduera ekonomikoen, natura- eta kultura-ondarearen eta kohesio sozialaren arteko oreka lortzeko?